

EBAZPENA, OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ONARTZEN DITUENA SOZIEATEAREN SUKALDARITZA ARLOKO GIZA NUTRIZIOKO ETA DIETETIKAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTU MUGAGABE BAT BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN KANPO-DEIALDIRAKO

2024ko martxoaren 22an, Gizarteko Sukaldaritza Arloko Giza Nutrizioko eta Dietetikako goi-mailako teknikari lanpostu bat barne-mailan betetzeko oinarriak argitaratu ziren.

2025eko apirilaren 30ean, Indesa 2010 SLren Gerentziako Zuzendaritzak prozesu hori amaitu zuen, esleitu gabe geratu baitzen, onartutako parte-hartzaile bakarra ezabatu zelako.

Horregatik, lanpostu hori betetzeko kanpoko deialdia egiten da.

Plaza hutsen, eta hala badagokio, sortu berri diren plazen eginkizunak, erantzukizunak eta sarbide sistema Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 29an egindako bilkuran, eta Indesa 2010 SL sozietatearen hitzarmenak berak onetsi zituzten lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian jasotzen dira. Langile publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak kasuan kasuko hautaketa prozesua irekitzea ezartzen dute. Haren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publizitate printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau :

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Sozietatearen sukaldearen arloko Nutrizio eta Dietetikako goi-mailako teknikari lanpostu mugagabe bat kanpo-deialdi bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri orokorrak eta espezifikoak eta eranskinak onartzea.

BIGARRENA.- Aipatutako lanpostura sartzeko kanpoko deialdiaren bidezko hautaketa-prozesuaren deialdia onartzea, eta eskabideak eta oinarri orokorretan jasotako agiriak aurkezteko epea ezartzea.

HIRUGARRENA.- Hautaketa prozesuaren hautaketa organo gisa honako hauek izendatzea :

- **Lehendakaria:** Indesa 2010 SL enpresako Giza Baliabide eta Orientazioko zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- **Kidea:** Indesa 2010 SL enpresako Operazio zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- **Kidea:** Laguntza Unitateko goi-mailako teknikaria
- **Kidea:** Indesa 2010 SL enpresako Sukaldaritza Arloko burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

- **Idazkaria:** Indesa 2010 SL enpresako Zuzendaritza Juridikoko teknikaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea batzordeari.

En Vitoria-Gasteiz a 17 de julio de 2025

Ander Eguidazu Aldalur
INDESA 2010 SLko zuzendari-kudeatzailea